



**ALDEZ AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA, ABUZTUAREN 9KO 43/2010 FORU  
DEKRETUA ALDATUKO DUEN FORU DEKRETUAREN PROIEKTUARI  
BURUZKOA. FORU DEKRETU HORREK NAFARROAKO FORU  
KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN HITZARMENEN ETA ITUNEN  
ERREGISTROA ARAUTU ZUEN.**

Bi printzipiok gidatu behar dute Nafarroako Gobernuaren erregelamendu-ahala. arauen kalitatea eta erregulazio ona. Horiei dagokienez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133. artikulua xedatzen duenez, kontsulta publiko bat sustatuko da erregelamendu proiektu bat egin aurretik, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jasoko baita zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta ordezkariak handieneko erakundeek, honako hauei buruz:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onestearen premia eta egokitasuna.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Aukeran dauden beste alternatiba batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Ildo beretik doa Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua.

**A) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.**

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeak, 92. artikulua bidez, Hitzarmenen eta Itunen Erregistroa sortu zuen, Administrazioak sinatutako hitzarmen eta itunen publikiziterako, gardentasunerako eta kontrolerako tresna izan zedin. Agindu horrek berak ezartzen zuen geroko erregelamendu batek zehaztuko zituela erregistroaren araubide juridikoa, funtzionamendua eta atxikipen organikoa. Legezko gaikuntza horren ondorioz, egun indarrean dagoen abuztuaren 9ko 43/2010 Foru Dekretua onetsi zen, baina beharrezkoa da foru dekretu hori aldatzea,



erregistroaren araubide juridikoa egokitu dadin, sortu zenetik hona legedian egin diren bi aldaketa esanguratsu hauetara:

- Lehenengoa: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen onespena, zeinak indarririk gabe utzi baitzuen abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legea; haren xedapen iragankor bakarrean adierazten da Hitzarmenen eta Itunen Erregistroak beste izendapen bat izanen duela aipatu foru legea indarrean jartzen denean; Elkarrekin Jarduteko Planen, Hitzarmenen eta Itunen Erregistroa, hain zuzen ere. Gainera, foru lege horren V. tituluak administrazioarteko harremanak arautzen ditu, eta administrazioen koordinazioa, elkarlana eta lankidetzaren gidatu behar dituzten premisa berriak gehitzen ditu; horiek guztiak gehienbat hitzarmenen eta elkarrekin jarduteko planen bidez gauzatzen dira. Bestalde, lehen aldiz arautzen dira administrazio publikoen arteko harreman elektronikoak.
- Bigarrena: Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 25. artikulua; bertan ezartzen da zer informazio jarri behar den jendaurrean herritarrek doan kontsultatzeko, erregistroan inskribatutako hitzarmen eta itunei dagokienez, eta berresten du erregistroaren eginkizuna dela hitzarmen eta itun horien publizitaterako, gardentasunerako eta kontrolerako tresna izatea Foru Komunitateko Administrazioaren esparruan.

## **B) Araua onestea beharrezkoa eta egokia ote den.**

Kontuan hartuz goian adierazitako lege berritasunek lege maila dutela, beharrezkoa da haien edukia txertatzea erregistroa arautzen duen erregelamenduan, guztiz bat etor daitezen.

## **C) Arauaren helburuak.**

Foru Dekretuarekin Nafarroako Foru Komunitateko jarduera konbentzionalen esparru juridikoa eguneratu nahi da, arestian aipatutako araudian izan diren aldaketengatik. Beraz, beharrezkoa da indarrean dagoen foru dekretu hori –hau da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Hitzarmen eta Itunen Erregistroa arautzen duen abuztuaren 9ko 43/2010



Foru Dekretua– aldatzea, aipatu administrazioaren jarduera konbentzionalaren esparru juridikoa eguneratzeko. Horretarako, maila bereko arau bat onetsi behar da, legezketasunaren eta segurtasun juridikoaren printzipioak beteko badira.

**D) Egon litezkeen beste aukera batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).**

Goian adierazitako helburuak lortzeko, eta horiei lege oinarria emateko, ezinbestean foru dekretuaren proiektu bat egin behar da.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 19an.

**KOORDINAZIO ETA ARAUGINTZA ATALEKO BURUA.**

**--SINADURA JATORRIZKOAN DAGO--**

Roberto García Larrea